



Euskadik "D" Planari (Demokrazia, Elkarrizketa eta Eztatbaida) egiten dion ekarpena

Europa eraikitzeko prozesuaren garai berri baterako 10 gako

EUSKADI 20 AÑOS EN EUROPA

EUSKADI 20 URTEZ EUROPA

BASQUE COUNTRY 20 YEARS IN EUROPE



A- "D" PLANA (DEMOKRAZIA, ELKARRIZKETA ETA EZTABAIDA) ETA EUSKADIREN EKARPENA

Europako Konbentzioan zehar sortu ziren ilusioak eta behin betikoz Europako Konstituzio bat izateko aukera bertan behera gelditu ziren Frantzia eta Holandan egin ziren erreferendumei emaitza txarrak lortu baitzituzten. Hori dela eta, Europa eraikitzekeo prozesua nolabaiteko "geldialdian" dago.

Argi dagoen arren erreferendumei emaitza txar horietan zeresan garrantzitsua izan zutela Europa eraikitzekeo prozesuarekin lotura zuzenik ez duten zenbait arazok, esaterako, globalizazio eta deskokatzeko prozesuek, inmigrazioari lotutako gaiek eta herrialde bakoitzeko barne-politikek, bada, hori horrela izanik ere, ezin da, baina, zalantzan jarri zerbait gertatzen ari denik.

Hortaz, Europako Batzordeak maila guztietan gogoeta eta lan aktiboa egitera gonbidatu zituen Europar Batasunaren etorkizunean inplikaturik dauden aktore guztiak (herri-administrazioak, gizarte zibileko erakundeak, sektore pribatua, komunikabideak, unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak, besteak beste), "D" plana (Demokrazia, Elkarrizketa eta Eztatbaida) deitu izan denaren bitartez.

Europaren etorkizunari buruzko eztabaida da, helburu zehatza duena: Europak XXI. mendeko erronkei erantzutekeo beharrezkoak diren politiken inguruko adostasun politiko berria lortzea.

Batzordearen nahia izan da eztabaida hori ahalik eta zabalena izan dadila, ekintza eta ekarpen ugari izan ditzala.

Euskadik, Europa eraikitzekeo lehen urratsak eman zirenetik bertatik parte hartu zuenez, beti egin izan du lan Europaren inguruko "ideal" horri buruzko gogoeta egin eta "ideal" horri ekarpenak egitekeo. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez, "EUROPA XXI. MENDEAN: BALOREAK, MUGAK ETA EUROPAKO HERRITARRAK: Euskadik Demokrazia, Elkarrizketa eta Eztatbaida Planari eginiko ekarpena" jardunaldiak antolatu ditu, eta horien bitartez hiru auzi nagusirako erantzunak bilatu nahi ziren:

1. Zenbateraino dago Europako herritartasun sentimendua? Zein balio konpartitzen ditugu?
2. Globalizazioaren aroan bideragarria al da Europak duen eredu ekonomiko eta soziala? Horrela bada, zer egin behar dugu eredu hori sendotze aldera?
3. Noraino heldu behar dira Europaren mugak? Nolakoak izan behar diren Europaren kanpo-politika eta kanpo-harremanak?

Jardunaldiok 2006ko apirilaren 11n eta 12an egin ziren, Guggenheim Bilbao Museoko Auditorioan. Gai horiei buruz eztabaidatzeko, Batasunaren eraikuntzan, hainbat eremutan, esperientzia handia izan duten adituen (ordezkari politikoak eta herri-administrazioaren ordezkariak, komunikabideetako, gizarte zibileko, enpresa-munduko eta ikasketa-arloko ordezkariak) ekarpena izan genuen; adituok EAE bertakoak zein Europako beste herrialde batzuetatik etorritakoak izan ziren. Hortaz, Euskaditik egiten den ekarpena da, baina euskal herritarrek iritzi hutsaz gain beste zerbaite ere jasotzen duena.

Jardunaldiotan jarraitu zen metodologia 3 paneletan (aurkeztu zen auzi bakoitzeko bat) egituratu zen; horietako bakoitzean txosten-esparru edo txosten orokor bat izan zen eta adituek hartu zuten parte, moderatzaile batek zuzendutako eztabaidan. Jardunaldiotara bertaratu zirenek ere parte-hartze handia izan zuten eztabaida horretan; eta hori zen, hain zuzen, antolatzaileek lehenengo unetik bertatik bilatzen zuten emaitzetako bat, gogoeta-prozesu honetan gizarte zibilak parte-hartzea funtsezkoa dela uste baitzuten.

Jardunaldiak zabaltzeko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak nabarmendu egin zuen euskaldunok izan dugun europazaletasuna; horrekin batera, nabarmendu egin zuen, orobat, europar nortasunak eta European way of life duten ezaugarri nagusia dela hizkuntza, kultura eta eskubideei dagokienez aniztasun zabal eta aberatsa izatea, hainbat formula eta eredu izatea. Subsidiarioratasuna, federalismoa eta erregionalismoa: hirukote hori izan daiteke batasunean aniztasuna gordetzea, batetik, eta baterako ekintzak eta Merkatu Bakarrak dakarten eraginkortasuna, bestetik, konbinatzeko modua eman dezakeena.

Europar Batasunaren D Planari egindako lehen ekarpen hau, aldi berean eta modu paraleloan, Euskadiri eta Euskadik Europan duen tokiari zein Europar Batasunaren ereduari buruzko gogoeta ere bada.

Gogoeta-prozesu honetan lortu diren ondorioak Europako Batzordea eztabaidarako proposamena abiaraztera bultzatu duten arrazoiekin koherenteak eta kontsekuinteak izango direlakoan eskaintzen dira; aintzat hartu daitezzen ere eskaintzen dira, horrela, Batzordearen solaskideak, kasu honetan, Euskadik, benetan eta modu aktiboan parte hartu izanaren sentsazioa izan dezan. Hau da, Batzordeak modu batean ala bestean erantzutea espero da, D Plana benetako elkarrizketa izan dadin.

B- "D" PLANARI, EUROPARI ETA EUROPA ERAIKITZEKO PROZESUARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA

Eztabaida eta elkarrizketa: erlazionatuta dauden bi kontzeptu

D Planeko gaiek zail egiten dute "eztabaida" eta "elkarrizketa" bereiztea; demokraziaren kontzeptuak, aldiz, zailtasun terminologiko gutxiago sorrarazten du. Elkarrizketak kontsulta soilak baino inplikazio handiagoa eskatzen du. Eztabaida, berriz, diskurtsoaren garapen-maila aurreratuago, kritikoago eta konstruktiboagoan dago.

Europan aktibatu den eztabaida Konstituzioaren ingurukoa izaten ari da, eta lehenago egindako eztabaidetan eta erakundeen arteko elkarrizketan proposatu diren ideiekin hornitu izan da; baina, gaur arte, ez da elkarrizketarik egon gizarte zibilaren eta klase politikoaren artean. Gainera, ez dago argi zein den Europako gizartearen barruan eztabaida sortzeko foro egokia: erakunde artekoa, edo tokikoa besterik ez, edo komunikabideen lidergopekoa, edo birtuala ere izan daiteke.

Frantziako eta Holandako hautesle gehienek Konstituzio Tratatua berresteari uko egin izana Konstituzioaren inguruko eztabaidan protagonista edo solaskide berriak sartu direla interpreta daiteke, ordura arte adierazpiderik ez zuten ahotsak edo klase politikoak ordura arte zeudenik ere pentsatu ez zuen ahotsak.

Krisi giroak eta inguruneak

Gaitzespen hori berdin antzeman daiteke herritarrok Europaren integrazioarekin eta, batez ere, Batasuneko erakundeekin duten identifikazio-mailak jasan duen jaitsieran. Antzeko bilakaera ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren iritziak ezagutzeko Eusko Jaurlaritzako Soziologi Prospekzioetarako Kabineteak egin zuen inkestan; horren emaitzak Jardunaldietan aurkeztu ziren eta Euskaditik egindako ekarpen honi erantsi zaizkio.

Norabiderik ezak eragindako larritasuna antzeman daiteke, Europako liderrek norabide falta dutelako, baita orientazio falta ere (komunikabideetan islatzea falta da, batez ere kanpo-politika bezalako

politiken kasuan), Europari buruzko jarrera ezberdinak dituztelako, eta ez dagoelako elkarrizketa eta eztabaidarako foro errealik, ez dagoelako Europako arlo publikorik.

Arrazoi horiek guztiek benetako legitimotasun-krisia dagoela erakusten dute. Nolanahi ere, horren guztiaren beste arrazoi bat izan daiteke, hain zuzen ere, Europaren integrazio-prozesua biziagotzen ari dela, edo, gutxienez, prozesu hori arlo eta espazio berriak hartzen ari dela. Zenbait politikatan (atzerri- eta segurtasun-politika erkidea, energiaren merkatua, berrikuntza, inmigrazio-politika, Lisboako Agenda) oso aurrerapauso txikiak eman dira, jardutearen inguruko erretorika izan da, bai, baina soilik koordinazioari eta borondate ona erakusteari buruzkoa.

Edonola ere, gaur egungo krisia ez da puztu behar, ez baita integrazio-prozesuak bizi duen lehenengoa (gogora bedi De Gaulle jeneralak erabili zuen "chaise vide" politika), eta azkena ere ez baita izango. Hobe da krisi hori ikuspegi konpartitua berriro definitze aldera gogoeta egiteko aukeratzat ikustea.

EB herritarren eta herrien parte-hartzean aurrera egin behar duen success story (istorio arrakastatsu) gisa

Desengainu edo abaildura giroa dagoen arren, ez dugu ahaztu behar Europar Batasunak benetako lorpenak jadetsi dituenik. Europar Batasunean ilararik badago, ez da bertatik irteteko, ezpada sartzeko. 1964an sei sortzailerekin abiatu zen Merkatu Bakarra, pertsonen (langile, profesional eta enpresak), kapitalen eta zerbitzuen zirkulazio askea eta kokatzeko askatasuna ekarri zuena; 1994. urterako, baina, bikoiztu egin zen estatu kideen kopurua, hamabi ziren dagoeneko, eta horietako batzuk Merkatu Bateratua atsegin ez zutenak, gainera; eta 2004. urtean, berriz, hogeita bost estatu kide zituen, eta horien artean bloke sobietar ohiko asko ere baziren. Mugakide ez diren hamabi estatu kidetan erabat funtzionatzen du euroak, eta nazioartean ere dolarraren maila hartzen ari da. Eskualdeen integrazioarako eredu den neurrian, erreferentziazko poloa da gure planetako beste eskualde batzuetako herrialdeak elkarrenganantz hurbiltzeko prozesuentzat.

Nolanahi ere, Batasunean, gaur egun, benetako protagonisten parte-hartzea falta da, herritarrena eta Europako Parlamentuarena, legitimotasunaren benetako locusarena. Orain, beste bultzada bat eman behar zaio prozesuari

eta aurrerapauso txikien estrategiari; baina eraikuntza behetik hasi behar da, herritarretatik, gizarte zibiletik (GKEak eta elkarteak), tokiko eta eskualdeetako botereetatik eta produkzio-faktoreetatik (enpresen, langileen eta akziodunen ordezkariak), herri-ekimenetik abiatuta, eta ez eliteetatik (Kontseilu Europarra, Europaren etorkizunaren gaineko Konbentzioa) eta boterearen gorengo mailetatik. Integrazioa gizarte zibiletik abiatuta lantzeko modu berri bat falta da.

Balioak, ereduak eta mugak

Batasuna, askatasuna, demokrazia, giza eskubideak, aniztasuna, oinarrizko eskubideak eta birbanaketarako eta aukera-berdintasunerako ereduak dira Europak dituen balio erkideetako batzuk. Hori da integrazio-prozesuak duen alderdirik funtsezkoena. Baina hori lortzeko, 25 erabakigune dituen baterako ekintza horretan gutxienezko eraginkortasuna lortze aldera, beharrezkoa izango da aho batekotasunaren printzipioa eta horren ondorioa, beto-eskubidea, alde batera uztea.

Aniztasuna da Estatu beraren barruan ohitura ezberdinak elkarrekin biziitzea. Aniztasuna balio bat da aberastasuna eta ñabardurak eskaintzen baititu, baina ez da modu artifizialean mantendu beharreko zerbait, edo nahitaez homogeneizatu behar dena, aldiz, balio horren bilakaera gizartearen bilakaeraren eskutik joan behar da.

Europak duen aniztasunaren atzean, zibilizazio erkide baten historia antzeman daiteke, eta horrek batasunaren irudipena ematen du. Batasun hori ez da zertan politikoa edo erlijiosoa izan behar, aldiz, batasun hori gehiago datza trukean, ideien, adierazpide artistikoen, gizarte-mugimenduen, erakunde-mailako irtenbideen, eskubide eta ohituren, Europak mundu osoari eman dizkion bikaintasunaren elementuen (arteak, poesia eta literatura, filosofia, musika, pentsamendu zientifikoa, korrante politikoak, giza eskubideak, arrazoiketa juridikoa, eta, azkenaldian, mugimendu ekologista eta garapen iraunkorra, sozialdemokrazia, segurtasuna eta bakea helburu erkideak izatea, eta Europako federalismoaren eta aniztasuna —ez soilik estatuena, baita Europa osatzen duten herriena ere— errespetatzen duen subsidiarotasunaren ideia) trukean.

Aniztasuna balio legez berriro agertzen da Europako gizarte-ereduaren gainean hitz egin eta eztabaidatzen den bakoitzean, izan ere aniztasuna,

egiaz, hainbat eredu batera existitzea baita. Erabakimena duen botere bakoitzak eredu gainean erabakiak hartzeko dituen autonomia-mailak aldatuz doaz; Europan, gizarteko elkartasunaren eta kohesioaren eredu bat baino gehiago ari dira gainjartzen: hasteko, Europar Batasuneko, ondoren, Estatukoa, eta gero, beherago, eskualdekoa legoke, baita tokikoa ere.

Zail da, hortaz, "Europako gizarte-eredu" bakarraz hitz egitea; baina, hori horrela izanik ere, behin eta berriro esaten da esportatzeko daukagun balio gorena gizarte-eredua dela. Dena den, agian bai esan daiteke konpartitutako ezaugarriak dituen merkatu handi bat dagoela, edo esan daiteke, halaber, badagoela ekonomiaren garapenari eta hazkunderi buruzko ideia bat; eta, ideia horren barruan, garapen eta hazkunde horiek, beraiekin batera, elkartasuna eta aldagai sozial eta ekologikoak ekonomia-ereduetan integratzea ekarri behar dute. Auzirik handiena da, beraz, eredu hori denboran iraunaraztea, eredu horren iraunkortasuna.

Jardunaldietako hirugarren auzi nagusiaren gaineko eztabaidan, Europaren mugei buruzkoan, ere argi geratu zen hainbat ikuskera daudela. Mugak aldatu egiten dira kontuan hartzen dugun Europako erakunde batetik bestera: muga ezberdinak izango dituzte Europar Batasunak berak, Europako Ekonomiaguneak edo Europako Kontseiluak; UEFA bezalako elkarteak ere ez dira ahaztu behar. Gainera, mugak aldatuz doaz gaur egungo Europar Batasunean benetan daukagun geometria aldagarriekin. Europar Batasuneko kide izatearen auziari eta atxikitzeko irizpideei dagokienez, azpimarratzen da komeni dela, are, beharrezkoa dela irizpideok arrazionalak eta objektiboak izatea.

Geopolitika eta geometria aldagarria

Europako estatuen arteko lankidetza dela eta, Europar Batasuna nazioarteko erakunde bat egituratzeko dauden modu guztien arteko beste bertsio bat da. Europar Batasuna hori baino gehiago da, jakina, Europako beste erakunde batzuk aztertzen ditugunean nabaritu dezakegun bezala.

Horrela, bada, hainbat Europa daude. Europaren muga geografikoak aldatu egiten dira aztertzen dugun erakundearen arabera, baina erakunde nagusiak Europar Batasuna eta Europako Kontseilua dira.

Orain arte, geometria aldagarriak halabeharreko arazotzat hartu dira, erritmo ezberdinetan, baina helmuga berdinarekin, aurrera egin ahal izateko

beharrezkoa den koste edo prezio politikotzat. Edonola ere, badirudi "neurrira" egindako integrazioa dagoeneko hemen, gure artean, daukagula, benetakoa dela. Baliteke aukera bat ere izatea integrazioan sakondu nahi duten herrientzat. Alabaina, lankidetzaren indartuen gaur egungo arautegia oztopo da helburuok lortzeko.

Aniztasunaren beste erakusgarri bat agenteen mota berri bat ere agertu izana da: konstituzio-eskualdeak, administrazio-eskualdeak, hiriak eta sareak. Fenomeno horrek polizentrismorako joera erakusten du: erabakiak hartzeko guneak, aurrerantzean ere, Brusela edo estatuetako hiriburuak izan ahal izango dira, baina, horiekin batera, beste gune batzuk ere egon ahal izango dira, alegia, beste hiri handi batzuk edo nazio edo eskualdeetako beste hiriburu batzuk, esaterako, Edinburgo, Bartzelona, Milan edo Bilbo.

Baina oraindik ere badago arrisku bat, alegia, errealitate soziopolitiko sendoak eta trinkoak dituzten zenbait lurraldek presentzia aktiborik ez izatea lurralde horiek sartuta dauden estatu kideetik banandutako edo bereizitako unitatetzat hartzen ez direlako (estaturik ez duten nazioen eta beste konstituzio-eskualde batzuen kasua), edo ahaztuta edo txirotuta dauden herriak direlako, edo munduko mapan agertu ere egiten ez diren baliabide natural eta fosilik gabeko herriak direlako.

Benetako kanpo-politika ez izatea kritikatzeko da. Auzia da, lehenbizi, zehaztea Europar Batasuna jarrerarik hartzeko gai den estatu kideen aho batekotasuna izan gabe (batzuen kanpo-politikak besteek dituztenetatik aldentzen dira, baita NBEko Segurtasun kontseiluan ere); eta, bigarren, Batasunaren kanpo-politika nolakoa izango den erabakitzea.

Eztabaida horietatik galdera bat sortzen da: Europar Batasunak erabili behar al du bere ahalmen biguna edo "soft power" a nazioarteko multilateralismoa eta partenariatuak agenda askatzaile batekin (Lurraren berotzea, armen trafikoa, pobrezia eta abarren aurkako borrokan datza) indartzeko, edo, hori egin beharrean, ahalmen hori berezko lidergoa bilatzeko erabili behar al du. Bigarren horrek izango lukeen arriskua da multilateralismotik urruntzea eta, ondorioz, azken urteetan Amerikako Estatu Batuetako Gobernuak sustatu duen unilateralismoa indartzea; unilateralismo horren barruan, giza eskubideen ikuspegi berezi batean gainean eraikitako segurtasun nazionalaren estrategia da nagusi.

C.- EUSKADIN EGIN DEN GOGOETA-PROZESUAN LORTU DIREN GAKOAK

Euskadin egin den lehen gogoeta-prozesu honetatik sortu da ondoko dekalogoia, hain zuzen, **Europaren etorkizunari buruzko gogoeta irekirako ekarpen diren proposamenen dekalogoia**:

1. D plana sorrarazi duen krisi-egoera (Frantzia eta Holandako erreferendumetan lortutako emaitza negatiboa eta Europarentzat Konstituzio bat eratzen duen Tratatu berresteko prozesuak egiatan eten egin izana) ezin ukatuzko errealitatea da. Ordura arte adierazpiderik ez zuten ahotsak edo eliteek ordura arte zeudenik ere pentsatu ez zuten ahotsak azaleratu dira. Baina hori ez da Europaren eraikuntzak bizi izan duen zorigaitz bakarra; horren guztiaren beste arrazoi bat izan daiteke, hain zuzen ere, Europaren integrazio-prozesua biziagotzen ari dela, edo, gutxienez, prozesu hori arlo eta espazio berriak hartzen ari dela. Hortaz, lan egin behar dugu krisi-egoera hori aukera bilakatzeko.
2. XX. mendeko 50eko hamarkadan hasi zen Europa eraikitze prozesuak eta prozesu horrek aukera eman dio, bada, Europari historia osoan zehar bizi izan duen bake eta oparotasun aldirik luzeena bizitzeko. Hain zuzen, Euskadin, itxaropena sortzen duen bake-prozesua daukagu gaur egun; eta, prozesu horretarako, konpromisoa eta elkartasuna eskatzen zaie Europako erakundeei, Ipar Irlandaren kasuan gertatu zen antzera. Bake eta elkarbizitzarako irrika hori koherentea da indar loteslea eman behar zaion Oinarrizko Eskubideei buruzko Europako Gutunean islatzen diren Europako balio erkideekin.
3. Balioez gain, Europako herritarrok batera ekin behar diegun interes komun sendoak konpartitzen ditugu: energia-politika, garapen iraunkorra, immigrazio-politika, I+G+b-n egin beharreko inbertsioa, segurtasun erkidea eta defentsa, besteak beste. Testuinguru horretan, agerian geratzen da geometria aldakorren, "neurritza" egindako integrazioaren, kontzeptuak duen garrantzia eta erabilgarritasuna, aukera baita integrazioan aurrera egin nahi duten herrientzat eta, orobat, bide bat ere bada erritmo geldoagoaren aldeko hautua egitea nahiago dutenen errezeloak ezabatzeko.

Lankidetzaz indartuen arautegia aldatzeak lagundu egingo luke kontzeptu hori benetan garatzen.

4. Dagoeneko martxan dagoen eraikuntza-prozesua, Europa eraikitzekeko prozesua, geldiezin da; baina, horretarako, Europar Batasunaren proiektuak eraginkorragoa, eragimen handiagokoa eta taxutuagoa izan behar du, europarron ilusioa berreskuratu dadin. Hain zuzen ere, hor jartzen da agerian gobernamentuaren printzipioak egoki garatu eta ezartzeak duen garrantzia. Herritarren ilusioa eta Europaren ideiak duen prestigioa eta legitimotasuna berreskuratze aldera, Europa sortzeko paradigma bera aldatu behar da. Europa, estatuen arteko kontratua izatetik, herritarrekin eta herrialdeekin eta horientzat biezat egindako kontratua izatera pasatu behar da. Argi eta garbi dago barneko demokrazian sakondu behar dela eta Europakoak diren parte hartzeko espazio errealek sortu behar direla. Gizarte zibilak, gazteek, azken finean, talde guztiek, parte hartzeko espazioak izan behar dituzte, Europa deitzen dugun errealtate hori eraikitzen duten erabakiak hartzeko dauden prozesuetan protagonista aktibo direla sentitu behar dute. Beharrezkoa da, halaber, Europako politikoen lidergoia eta komunikabideen konpromisoa. Azkenik, garrantzitsua ere izango litzateke Europako Parlamentuak herri-subiranotasuna ordezkatzeko duen erakundea den heinean duen zeregina indartzea.
5. Aniztasuna, batasuna den bezainbeste, Europako gizartearen funtsezko balioa da, eta biak ala biak zibilizazio erkidea egotearen erakusgarri dira. Europar Batasunak bermatu egin behar du aniztasun horrek modu naturalean irautea, inolako inposaketarik gabe, baina baita behartutako homologaziorik gabe ere. Horrela, bada, ezinbestekoa da aniztasuna —ez soilik estatuena, ezpada Europa osatzen duten herriena— errespetatuko duen subsidiariorik gabe printzipioa garatzea eta ezartzea.
6. Batasuna, egiatan, zenbait helburu elkarrekin lortzeko borondatean datza, konpartitzen diren balio batzuetan oinarrituta; balio horiek dira, funtsean, oinarritzeko eskubideak eta birbanaketarako eta aukeraberdintasunerako eredu bat. Horiek horrela, baterako ekintzan gutxienezko eraginkortasuna lortzearren, beharrezkoa izango da aho batekotatasunaren printzipioa eta horren ondorioa, beto-eskubidea, alde batera uztea.
7. Europa eraikitzekeko prozesuan aurrera egiteko gakoetako bat izan behar da “*strictu sensu*” estatuetakoa ez diren beste estamentu

batzuek ere erabakitze eskubidea izan dezatela. Ildo horretatik, eskualdeek gero eta zeregin garrantzitsuagoa izan behar dute, eta Batasunak berak mekanismoak ezarri beharko lituzke eskualdeek beren eskumenekoak diren arloei dagozkien Europako erabakietan jarduteko duten eskubidea sendotu dadin. Orobat, polizentrismorako joera ere ikusten da: erabakiak hartzeko guneak, aurrerantzean ere, Brusela edo estatuetako hiriburuak izan ahal izango dira, baina, horiekin batera, beste gune batzuk ere egon ahal izango dira, alegia, beste hiri handi batzuk edo nazio edo eskualdeetako beste hiriburu batzuk.

8. Mantendu nahi dugun ongizate-estatuaren eredua zein den ere definitu behar dugu. Zein diren Europar bazkide garenok izan ditzakegun minimo komunak, eta, bestalde, nola hobetu ditzakegun funtzionatzeko ditugun mekanismoak. Ekonomiaren garapenerako baldintzak erraztu behar dira bai, baina aintzat hartu behar dira balio sozialak, kulturalak, ingurumenekoak, bai eta hezkuntza-kulturako balioak ere, horiek egiten baitute garapen hori iraunkor. Eredua sozial eta ekonomikoa globalizazioaren lider bihurtzeko aukera izan behar da Europarentzat; dituen balio demokratikoak eta gizarte- eta ekonomia-eredua eskaini behar dizkie Europar gainerako herrialdeei.
9. Gizartean bertan egiten den elkarrizketa gehitzea lagungarria izango litzateke hazkundeak dakartzan onuren banaketa bidezkoagoa egiteko, bai eta lan-merkatu bidezkoagoa eta gardenagoa sortzeko ere, baina, horrekin guztiarekin batera, berrikuntzaren aldeko apustua egin behar da. Horretarako, beharrezkoa da ikerketa-zentroen eta enpresen arteko lankidetzaren handiagoa egotea. Gainera, prestakuntza, izan behar da —etengabe ikasteko ikuspegiarekin betiere— epe ertain eta luzera izango dugun hazkundera bermatzeko gakoetako bat.
10. Europaren nortasuna izan daiteke eta nortasun horrek izan behar du Europar kanpoaldera begira daukan proiektzioaren elementu zentrala. Europaren kanpo-politikak zail izango du Europar munduan ahotsa izatea ahalbidetuko dion gutxieneko indarra lortzea, baldin eta ez badago europar guztien arteko nortasun erkiderik. Gure kanpo-harremanak eraikitzerakoan, eraikuntza hori koherentea izan behar da gure barne-balioekin. Munduarentzat jarraibide eta eredua izan behar dugu, mundua leku bidezkoagoa eta solidarioagoa bihurtu dezagun.